

ARANTZAZUKO V. MENDEURRENEAN

Arantzazuko frantziskotarrek Santutegiko beren Anaiartearen V. Mendeurrena ospatzen dutela eta, zenbait lanetan esku izateko parada izan dut, hainbat lagunekin batera. Horrek, honelako ospakuntza baten azpian legokeen zenbait arazo teoriko eta historiko aztertzerako behartu gaitu. Lanbide horretan aurkitutako kezka batzuekin nator gure *Karmel* honetara, zuzendariaren deia erantzunez.

1. Arantzazu historikoaz

Santutegi baten talde-eraikuntza izpirituala gehienetan lanbide luzea izan ohi da, sorrerako historietatik hasi eta ondoko mendeetan arrakastaren sabaia jo arte. Ez da harritzekoa, ba, Bizkaian bertan, 1980an katalogaturiko 810 ermita-elizetan, 19 bakarrik heldu badira Santutegi izatera¹.

Batzuetan programatua ere izan daiteke eraikuntza hori, nabarmenki programatua. Sinestunen elkarteak jaso ohi da Santutegia, herri sinestunak eta unean uneko teorikariek elkarrekin; kasu bakoitzean jakin behar nork zer jarri duen eta nork gehiago, hark ala hauek. Eraikuntza horietako bat izan zen San Martin Tours-ekoarena († 397), adibidez: Santutegiaren

¹ ARREGI, G. (1999): *Origen y significación de las Ermitas de Bizkaia*. Bilbao: Instituto Labayru. 78.

arrakasta ez zen bat-batekoa izan, eta horretara iritsi aurretik lurralde hurbileko herritarrek eta Gotzainek asmo handiz lan egin zuten, “mirarien” sona ahoz aho eramanez eta “Historiak” idatziz, hura hil eta hurrengo mendean².

Legenda, mirari (*miracula*), herri-erromantze, olerki landu, historia eta abarrek hartu izan du parte Santutegien iruditeria (*imaginaire*) sortu, beztitu, itxuraldatu, hedarazi eta bizkortzen. Fededunentzat *goitik emandako misterioaren egoitza* izan da Santutegia, baina aldi berean fededunak berak bere sinesmenetik atondu eta jantzi du Santutegiko *dobain misterikoa*: Santutegia, ba, emana eta hartua da (erlikia, irudia, gertakaria), eta aldi berean, fedeak sortua. Herri fededunak bere erlijio-tasun herritarretik sortua, noski, eta, gainera, buru eta bihotz jakinek -pertsonaia historikoen, alegia- elikatutako «mitoa» ere bai³.

Sorkuntza horrek bere ibilera izan du Arantzazun ere. Herritarrek beren gisara hartu zuten hitza, 1468ko Agerpeneko Ermita ttikiaren inguruan (oñatiarrak eta arrasatearrak aipatu izan dira beti, lehen ordu haietan), irudiari aterpea emanez, bide berriak urratuz eta serorak ere Ermita inguruan bilduz; fraideak urte batzuen buruan inguratu ziren Aloñara. XV.aren hondarretarako, bide luzea zegoen eginda Arantzazun, zinezko Santutegi bat sor zedin, hau da, erromesak ingurutik eta urrunagotik erakarriko zituen gune erlijiosoa zen jada hura.

Ondorioz, 1522an aski indar zuen Arantzazuk Eneko Loiolakoa bertara hurbil zedin. Igoera hau ere sinbolikoa gertatuko zen gero, Arantzazu-zaleen oroimenean. Erreforma Katolikoak XVI. mendean izandako erromes eredia San Ignazio izan baitzen.

² CHELINI, J.; BRANTHOMME, H. (1982): *Les chemins de Dieu. Histoire des pèlerinages chrétiens des origines à nos jours*. Paris: Hachette. 86-88.

³ «Mito» hitza bere esanahi positiboan hartzen dut hemen, hau da, errealitatea atzemateko tresna izan daitekeen irudikatze-molde bat bezala, erlijioaren zientzia modernoek adierazi dutenaren arrastoan (M. Eliade, R. Petazzoni, W. F. Otto, etab.): Mitoa ez da zerbitu absurdu, nahasi eta ulertezina; aitzitik, mitoa eta kultura errealitateko eta gertakariko misterioaren bizipena da.

Herri-fedetik zetorren Arantzazuko historia «mitikoak» bi laungarri eraginkor izan zituen: Santutegian bizitzen jarritako serora eta fraideak, alde batetik, eta bestetik, Santutegiaz idatzituzen luma-gizonak. Ez da pentsatu behar, gainera, azken hauek, guztiak, fraideak izan zirenik. Bi, behinik behin, sona handiko historialariak izan ziren: Esteban Garibaiko, arrasatearra, eta bestetik, Joan Arkaiako, arabarra. Biek ere, bakoitzaren obraren barnean lekuz kanpo (edo tamainaz kanpo, bederen) hitz egin zuten Santutegiaz. Bi horiek, eta beste bi erlijiosok (Gamarra eta Luzuriagak), osatu zuten XVI-XVII. mendeetan Arantzazuko «mitologia misterikoa», eta geroztik berorren itzalpean egon da Santutegiko bizitza XX. mendea arte. Santutegiko arrakastaren parte on bat iturri haietatik dator.

Garibaik bere *Compendio Historial*-ean _beraz, Penintsulako Erreinuen Historia osoa bildu nahi izan zuen obran: 1571_ sartu zuen Santutegi txiki honen lehenengo azalpen historiko inprimatua⁴. Liburuaren gaiak eta jiteak ez, baizik autorearen jaiera eta sinesmen-hobespenekegin zuten hori, hau da, berez ez zegokion Historia hartan Arantzazukoari halako lekua ematea, ez baitago ahazterik Garibai bera Arantzazura erromes ibilia zela eta semea ere Santutegi horretan izan zuela fraide. Felipe II.aren kronikari ofizial hau izan zen, ba, Santutegiaren propagandari onena.

Antzeko zerbait gertatu zen mende bete geroago, Arabako Probintziaren lehen historialariarekin, beronek Batzarren enkarguz bere *Compendio Historial de Alava* burutzean (c. 1665)⁵. Joan Arkaiakok, Gasteizko Alkate ere izandakoak, luzexka jardun zuen Arantzazuko Santutegiari buruz, hau da,

⁴ *Los XL libros del Compendio Historial de las Crónicas y Universal Historia de todos los Reynos de España*. Antwerpen. 1571. Arantzazuri dagokion testua: XVII. liburuko XXV. Kapitulua (II. Liburukian, 1126-1132. or.).

⁵ ARCAYA, J. de (1993): *Compendio historial y antigüedades de la Provincia de Alava*. (Un manuscrito del siglo XVII para la historia de Alava). Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.

egotez Araban ez zegoen Santutegiaz, eta testua amaitzean zera idatzi zuen:

Confieso que me he alargado en esta narración pero la entrañable devoción que tengo a este Santuario y el estar esta tan radicada en los corazones de los Alaveses me podrán disculpar si acaso he sido prolijo en ella.

Hau jakinik, ez gara sobera harrituko Santutegiko lehenengo historialari orokorrak arabarrak ditugula jakitean (Gaspar Gamarra, eta Joan Luzuriaga), izan ere Gasteizko frantziskotarren komentu handia eta Araba bera sekula baino hurbilago baitzeuden XVII.ean Santutegi frantziskotar honetatik. Gamarra-ren obrak gure egunak arte itxaron behar izan zuen argitara irteteko, Luzuriaga-renak bere edizio-ibileran ezusteko bideak egiten zituen bitartean: Mexiko, 1686, eta berehala eta urte berean, Donostia eta Madril (1690)⁶.

Historiografia honek guztiak ez zien gutxi lagundu sermolarri eta herritarrei Arantzazuren «santutasun miragarria» eraikitzen. Aro Moderno osoan eta honago ere, indar betean egon zen Santutegiko oroimen misteriko hura, batzuetan zinezko historia zela, bestetan legenda ameskorra, baina betiere herrisineskizun azkarra. Ondoko historiografiak _argitara emanak, nahiz gabeak_ belaunaldi bakoitzari eman zion zegokiona (gogora, adibidez, Rodríguez Pastor, 1880), Lizarralde bere lana beste molde batez egin zuen arte⁷.

⁶ Gamarra-ri egotzi zaion historia anonimo eskuizkribatua Santutegian dago, eta Villasantek paratu zuen berorren edizio inprimatua: [GAMARRA, G. de] (1966): *La más antigua historia de Aránzazu (1648), editada ahora por primera vez*. Vitoria. (*Scriptorium Victoriense*-ren separata). Zinez, Luzuriaga izan zen XVII-XIX. mendeetako Santutegiko historialari ofiziosa eta hedatuena: LUZURIAGA, JUAN DE (1686): *Paranympho Celeste. Historia de la mystica zarza, Milagrosa Imagen y Prodigioso Santuario de Aránzazu de los Religiosos Observantes de N. Seráfico Padre San Francisco en la provincia de Guipúzcoa de la región de Cantabria*. México: Hros. y Vda. de Bernardo Calderón.

⁷ LIZARRALDE, J. A. (1950): *Historia de la Virgen y Santuario de Aránzazu*. Aránzazu.

Dena den, Arantzazuren «eraikuntza» hori, esan dugu, kantategi herritarrak hasia zuen, eta historialarien eskuetatik pasatu ostean, bertso eta olerki landuetara heldu zen, eta da, e. b. XIX.ean Arrese-Beitiarekin, eta bereziki XX. mendean. Hain zuzen, Salvatore Mitxelenaren lana, Historia hori olerti bihurtzekoa izan zen, Santutegiari epika mistiko-herritarra emanez. Berehala, oso bestelako gisa batean, B. Gandiagaren sorkuntza etorri da, lur gordinari eta gizarte soziologiko errealagoari lotua, azkenik iragana eta modernitatea modu miresgarri batean elkartzuz⁸. Eta interpretariok ez dira bakarrak izan.

Era berean, zaila da gaurko Santutegia Oteiza, L. Muñoz edo Gandiagarik gabe ulertzen, baina are zailagoa oraindik, izangune erreferentzial bilakatu den Arantzazu hau _euskal iraganaz eta biaz bazkatu eta alhatua, eta erlijiotasunaren arragoa dena_ biziera frantziskotarrak gabe konprenitzea.

Mundu kristauan, asko izan dira Institutu erlijiosoren baten eskuetan egondako Santutegiak. Adibidez, Lur Santuetako gehienak, hain zuzen, frantziskotar beren ardurapean jarri zituen Eliza Katolikoak. Euskal Herrian bertan, gaur egun, Andre Mariaren batzuek erlijiosoak dituzte zaintzailatzat: Estibalitzen beneditarrak daude, Angoston pasiotarrak; Santuenetan, Deustuko San Felizisimon pasiotarrak, Xabier eta Loiolan josulagunak.

Santutegien zaintzaileek betiere beren nortasunez jantzi ohi dute Santutegiko bizitza, bertako eraspenak, otoitzaldiak, harremanak, ospakizunak, kantategia, etab. Batez ere, jaiera eta erritual herritarrari azalpen-bide instituzionalagoa ematen/ezar-

⁸ Mitxelenak bi lan esanahitsu utzi zizkigun: bata, poetikoa (*Arantzazu. Euskal sinismenaren poema*, 1949) eta bestea, historikoa, Lizarralderi jarraiki (*Ama-semeak Arantzazuko kondairan*, 1951).- Elorri-n, bat-batean, Arantzazu berri eta olerkitu bat erakutsi zuen Gandiagak (1962), eta ondoko lanetan, mundu teluriko sorgindu hori galdu gabe, euskal gizartera (*Hiru gizon bakarka*, 1974), hirira (*Uda batez Madriren*, 1977), poetaren bere baitara (*Denbora galdu alde*, 1985) eta fraide-anaiartera (*Gabon dut anuntzio*, 1986; *Abotsik behartu gabe*, 1997) egin zuen jauzi, jarraian eta aldi berean denetan bizi zelarik.

tzen laguntzen dute fraideek, erlijiotasun herritarraren usadioak osatu edo zuzenduz.

2. Kristau Santutegiak

Gizarte sekulartuak hainbat leku, une, bizipen eta zeregin ongi des-sakratuak ditu dagoeneko, eta halaxe geratuko dira horiek, seguraski, ondoko belaunentzat.

Erljioen fenomenologian eta soziologian deskribatu izan diren Santutegiez esan nahi nuke zerbait, gaiak bere egunekotarik baduelakoan. Iraganean erlijiotasunak izan duen pisua ulertzeko ere, Santutegien honi bere lekua dagokio, besterik ez bada Europan bertan milioika lagun mugiarazi dituelako, eta erromesen bideetan eta bideetatik kultura eta artea, adibidez, besoz beso ibili direlako (Santiago Bidea da lekukorik onena, baina ez bakarra). Gaur egun ere, Mekka-rako musulmanen *al-Hajj* deritzan erromesaldiak edo hinduen Benaresko Santutegiek milioika lagun mugiarazten dituzte urtero munduan. Mugimendu historiko eta guztiz herritarrak dira hauek, dei berezirik behar ez dutenak, beren baitan baitute mende luzeen indarra.

Beste gisa batean, 2000ko Jubileu-Urteak ere izan du erakarmenik Europa zaharrea, 1300ean hasitako beila-deiari segida emanez. Euskal Herriko Santutegiek ere erakarmenik izan dute aurreko belaunetan eta ez dirudí usuario hura guztiz galdua denik: Urkiola edo Xabier, Loiola edo Estibalitz, Begoña edo Arantzazu... Fededun eta ez-fededunei aukerarik ez zaie falta honelako ibilaldietan parte hartzeko.

Arantzazuko Menduurren honek ere eskainiko dio parada onik ibiliaren hausnarra maite duenari. Baina beti da galdetzekoa zer den hau dena, eta gutxienez zein zentzu izan duen Santutegiak, erlijioen historian eta gure herriko erlijiotasunean.

Erljio ezberdinetako Misterio-bizipenak aurpegikera ugarriak ditu bere historia eta geografietan; erritualean eta azalpen teorikoetan bezala, dagokion gizartean eta bere antolara so-

zialean. Gure etnografoek ere erakutsi nahi izan digute erlijio-fenomenoa eta Santutegiarena Euskal Herriko erlijiotasun herritarra aztertzean⁹.

Erlijiotasun herritar horrek bere “leku sakratuak” izan ditu, elizetan noski, baina eliz hierarkiagandik aparteko autonomia handi batekin ermita eta santutegietan, eta horrek izan duen indar sozial, historiko eta instituzionala ezin ukatua da gure artean.

Lekuok eliz hierarkiak eratutakoak baino maizago dira herritarren ekimenez sortutakoak, eta herritarren azalpen erlijioso libreak, betiere gero hierarkiak arautu eta gidatu nahi izan dituenak. Honelako jaiera eta leku herritarrek erakarmen handi eta zabala izan dute batzutan, eta erromeria edo erromesaldiek jendetzak bildu izan dituzte. Santuen artean San Antonio Urkiolakoa izan daiteke honelako adibidea, herrian bere kantategi aberatsa duela.

Erazegi pentsa daitekeenaren kontra, kristauen Santutegiak ez ziren sortu Jesus hil eta berehalako belaunaldietan. Aitzitik, lehen kristauek _juduek beren erlijiotasuna toki jakin bati, Santutegi bati, lotuta zutela jakinik: gogora Jerusalemgo Tenplua_ nahiago izan zuten “nonahi zegoen eta nonahitik adora zitekeen Jainkoa” leku bati ez lotu.

II-III. mendeetan oso zaila da *erromes* kristauez hitz egitea, hitzaren esanahi hertsian behintzat. Artean, ez zegoen Santutegirik. Egiaz, IV. mendean aldatu ziren erabat gauzak: Dioklezianoren pertsegizioan (303-310) hildako kristauen oroitzapena oso bizia zen Konstantinok askatasuna eman zuenean (Milano, 313), eta aro berriaren barnean Jesusen Hilobia aurkitu zen Jerusalemenean (c. 340). Testuinguru erlijioso eta politiko hartan sortu ziren kristauen Santutegiak, eta hasi ziren Lur Santuetarako edo Erromarako erromesaldiak. Fenomeno sozio-erlijioso berria.

⁹ Ikus, adibidez, bidean den Etniker-en *Atlas Etnográfico de Vasconia*-n jada kaleratutako *Ritos del nacimiento al matrimonio* eta *Ritos funerarios*, eta egitasmoan dagoen *Religiosidad popular*. Arregui 1999: 229-289.

Santutegia hiru datuk definitzen du: 1) Beneragarri izan daitekeen zerbait “misterikoak” (sarritan Santuen erlikiak, irudiren batek, etab.), 2) Sakratutzat hartua den leku batek, eta 3) Erromes bezala datorren herriak. Hirurak dira funtsezkoak Santutegi batean.

Esan dugunez, Santutegia eraikuntza sozial eta historikoa da, prozesu baten ondoren lortzen dena; bilakabide hori luzea ere izan daiteke bere sortzean eta ondoko bizialdian; baina bestelakorik ere izan da. Ezagutzen ditugu, batez ere Aro Garaikidean, bat-batean jaiotakoak (Lurdes edo Fatima), une historiko jakin bati oso lotuak, eta asko dira bat-batekotasun hori gabe bestelako sorrera eta ibilera historikoa izan dituztenak.

Santutegien erakarmenak bere eremu geografikoa izan ohi du, eskualde batetik, herri batetik edo kasik kontinente edo mundu osotik bil ditzake bere erromesak, eta agian iraupen luzeko eta eragin zabaleko gertakari bilaka daiteke. Erljio guztiek dituzte honelako adibide sonatuak, baina erlijioen munduan zehar Santutegien sarea trinkoa izan da. Erdi Aroan, adibidez, Jerusalem, Erroma edo Santiagora hainbeste jende joan ohi zen eskualde eta herrialdeetako Santutegi txikiagoetara: Europako bideak merkatariek baino gehiago erromesek zeharkatzen zituzten, fedeak, justizi zigorrak eta norberaren grinak eramanda.

Kasu handiek, beren alde erlijiosoarekin batera bestelako alde aberatsak izan dituzte eta giza kulturako fenomeno aztergarriak dira. Garapen historiko erraldoiak izan dituzten Santutegien ondoan, Santutegi txikiek ere honelako alde anitz eta interesgarriak dituzte beti, erlijiosoarekin batera.


Honela, erakarmen zabal handiko Santutegi gutxi-asko unibertsalen ondoan, beste anitzek “tokikotasuna” zaindu eta garatu dute. Tokikotasun honek, gainera, balio historiko erantsi bat ere izan du, Kristautasunean bezala beste erlijioetan ere: inkulturazioarena.

Maiz, Santutegiak leku inkulturatu eta inkulturatzaileak dira, hau da, beren neutraltasun unibertsal posiblearen ondoan to-

kian tokiko herri eta kulturaren aurpegia erakusten dute eta maite dute. Horretarako arrazoiak asko dira: tokiko historian eraiki dira Santutegiak, datozkion erromesen arabera, bertako herriaren zerbitzuan, etab.

Baina, hori horrela izanda ere, Santutegietan berehala soma daiteke tokiko mugak gainditu eta herri eta jende berriak irabazi nahia. Batez ere, Santutegiak Ordena edo Institutu baten eskuetan jartzen direnean, tokikotasun hori gainditu beharra nabaria izan ohi da. Hain zuzen, eliz erakunde hauek gertatu dira Santutegi askori beren mugaketa geografikoa ireki diotanak eta arrakasta historikoa segurtatu, beraien inguruan banakako nahiz taldekako erromesen gizartea trinkotu eta hedatuz, eta denborazko iraunpen-segida ziurtatuz.

Parrokietan eguneroko erlijio-bizipena lantzen den bitartean, Santutegiek ez-ohikotasuna eskaini izan diote sinestunari,



erromes-bideko gogoeta, “misterio” sinetsiak eman diezaiokeen katarsia. Sinestunak Santutegian miraria bilatu du askotan (eta hagiografiak Santutegi handietako mirari-liburuak idatzi zituen, gaur egun kasu bakoitzeko geografia erlijioso interesgarria erakusten digutenak), baina baita barne-garbitasuna, gizarteko bakea edo gizalege hobea ere, edo norberaren zoriona eta fededunaren eskerrona.

Santutegien atzean, edo inguruan, soziografia begiragarri bat dago, hain zuzen Santutegia ez baita “leku sakratua” bakarrik, eta bai bideetara “misterio” baten bila irten den *herria* ere. Eta herria den neurrian gizartea da eta jaierezko hautapen jakin bat egin duen jendea. Horrela, herri horren arrangurak, itolarriak, etsipenak eta itxaropenak doaz bidez bide Santuaren edo Andre Mariaren etxera, Santutegira.

Bere sakonean, garaian garaiko erlijiotasuna erakusten du erromesaldiak, garaiko mentalitateak eta gizarte-arazoak, bere kanta eta erromantzeekin, bere otoitz-moldearekin, herritarren libertatearekin eta eliz erakundearen kezka eta arauekin.

Frantzian, 1873ko erromesaldien urte famatu hura ez zen gertatu, orduantxe hain zuzen, arrazoi historikorik gabe, III. Errepublika laikoaren hastapenean. Eta, gure artean, azken gerrote karlista bukatzean eratutako erromesaldiek ere garaiko giroari erantzun nahi izan zioten (1876-1881). Fededunen sinismena ez da des-historikoa izaten, eta ez dauka zergatik izan, nahiz eta horrek bere baitan arrisku edo promesak dituen, aldi berean.

Santutegien garapena esan dugun prozesu sozio-historikoa delako da gaur egun hainbat ikertzailerentzat aztergai bizia. Arrazoi berorreatatik ere prestatu da argitara berri den *Arantzazu. Euskal Santutegi bat XX. mendean*.

3. Arantzazuko Andre Mariaren Santutegia

Andre Mariak, tradizio kristauan, bi moldetako deiturak izan ditu, unibertsalak esango genituzkeenak _jaiera definitu batean

mundu osora zabalduak, eta tokikotasun bakarrik gabeak; Ordena erlijioso jakinen eskutik joan diren Errosarioko eta Karmengo Ama izango lirateke kasurik ezagunenak. Bigarren motakoak, berriz, tokian tokikoak dira, beren Santutegia toki jakin bakarrean lekutua dutenak. Honelakoak leku hautatu bati lotuta ageri dira, nahiz eta inoiz emigratu ere egin dezaketen: Arantzazu Ameriketako hainbat lekutara, edo Ainhoa eta Lasartera; Lurdes, Donostiara, etab.

Lehen Santutegi kristauak berandu jaio baldin baziren, Andre Mariarenek oraindik beranduago izan zuten lehen loraldi handia, XI. mendetik aurrera. Antzeko zerbait gertatu zen askoz geroago Bizkaiko ermitekin. Alde handiarekin, batez ere Santuenak izan ziren Jaurreriko ermitak. Hala ere, Andre Mariaren ermita gutxi haietatik jaio ziren, herriaren hobespenaren indarrez, Bizkaiko Santutegirik gehienak: 13 Andre Mariarenak, 5 Santuenak eta 1 Kristorena¹⁰. Dena den, Andre Mariaren ermitak Euskal Herri osoan daude banatuta, eta bazuek, Bizkaiko horiek bezala, Santutegi izatera iritsi dira¹¹.

Arantzazuko Santutegia ere Mariarena da, eta frantziskotarrekin beren tradizio mariologikotik landu dute bertako irudiarekiko eraspena. Euskal Herriko beste komentuek, fraideen predikuak eta nolana hiko presentzia sozialak, zalantzarik gabe, bortizki lagundu dio Arantzazuko Amaren deiturari.

Lanbide horretan, frantziskotarrek tokiko Andre Mariaren deiturarekin lotu nahi izan zuten Ordenaren Mariarekiko jaiera berezi bat. Gaur egungo irudi soila aurreko mendeetan, 1960.etaraino, mantuz jantzia agertu izan da, beharbada jada XVI. mendetik hasita. Orain, mendeurreneko Erakusketan ikus daitezke orduko Kamarina (XVII-XVIII. mendeetako orfebre-la-

¹⁰ Arregui 1999: 77-78.

¹¹ Ik. herrialde ezberdinetako ermiten katalogoak, eta Ama Birjinaren Santutegiei dagokienez: ITURRATE, J.; ELUSTONDO, J. A.; VILLAREJO, A. (1999): *Guía para visitar los Santuarios marianos de los Territorios Históricos de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya*. Madrid: Encuentro Ediciones.

na) eta Andre Mariaren irudia, aurreko mendeetako belaunek ezagutu zuten gisan.

Irudia, horrelako gainjantziz beztitua ematea tradizio barroko sortzez-garbizalean dagoela esan behar da. Jakina denez, Sortzez Garbiaren jaiera frantziskotarren tradizioan zegoen, eta Euskal Herrian oihartzun zabala eta beroa izan zuen, arazo erlijioso-instituzional izateraino, hau da, herrietako Udalek eta herrialdeetako Batzarrek dogmagai haren defentsan lan egingo zutela zin egiteraino. Izan zituen auzi eta liskarreatatik, arazoa bitxia eta guretzat oso urruna dela esan beharko da, gutxienez.

Arantzazuko Amaren irudia Sortzez Garbi gisara jantzi zenezan, ba, irudia "frantziskotartu" ere egin zela esango genuke, eta, bestalde, tokiko jaietari alde unibertsalago bat erantsi zitzaioa. Hogeigarren mendean jantzi haiek kentzeak, eta irudia bere soiltasunean aurkezteak sinbolikoki aro berria hasi zutela esan daiteke, Basilika berriarekin batera etorri dena.

Santutegi honek, bere alde erlijiosoarekin batera, eta horren barruan ere, inkulturazio ukitu bat eta ekimen zehatzak izan ditu. Egia izan zen hori, adibidez, Ikastegia izan zuenetik (XVI. mendea), bere Musika-Eskolaren arrakastaz geroztik (XVIII. mendea), eta orobat gertatu da azken mende eta erdian (1846-2000). Gorago esan da horretaz zerbait.

Santutegi guztiek bezala, Arantzazuk ere erronka zail bati egin behar dio aurre: inguruko gizarte sekulartuan "misterioa" present egiteari. Eta ahalegin hori egiten duelarik, aldi berean gure Herriaren erreferentzi gune nola izan asmatu beharko du, bere harremanetan (abian da jada «Arantzazuko Adiskideen Elkarte»), bere eliz eta kultur lanean (eratu nahi den «Kultur Topagunea»), izadiarekiko bere frantziskotartasunean (badatorren «Aizkorri-Urbiako Parke Natural»-erako atari moduan).

Euskal Herriaren mesede eta zerbitzutarako nahi den honi guztiari etorkizun emankorra opa diogu, Arantzazun.

Donostia, 2001-09-04
Joseba Intxausti